

GARIZUMAKO HIRUGARREN IGANDEA B

Lehen irakurgaia

(*Jainkoak bere Legea emaiten Moisen bidez*)

Jalgitza liburutik 20, 1-17

Zinai mendian,

- 1 Jaunak hitz hauek guziak erran zituen:**
- 2 “ Ni naiz Jauna, zure Jainkoa,**
Egiptoko lurraldetik, esklabutza etxetik atera zaitudana.
- 3 Ez duzu izanen nitaz beste jainkorik.**
- 4 Ez duzu eginen idolorik, ez itxurarik, goiko zeruan,**
behereko lurrean edo lurpeko uretan direnetarik.
- 5 Ez zira ahuspez emanen itxura horien aitzinean, heien adoratzeko.**
Ni, Jauna, zure Jainkoa, Jainko jeloskorra bainaiz.
Hastio nauten aiten gaixtakeria haurren baitan gaztigitzen dut
hirugarren eta laugarren gizaldiraino;
- 6 bainan milagarren gizaldiraino agertzen diotet urrikalmendua**
ni maite nauteneri eta nere manamenduak begiratzen dituzteneri.
- 7 Ez duzu Jaunaren, zure Jainkoaren izena erabiliko gaizkirako,**
Jaunak ez baitu gaztigurik gabe utziko
haren izena gaizkirako erabiltzen duenik.
- 8 Izan gogoan larunbat eguna, Jaunari sagaratzeko.**
- 9 Sei egunez ariko zira lanean, eta eginen zure lan guziak;**
- 10 bainan zazpigarren eguna atsedean eguna duzu,**
Jaunari, zure Jainkoari, eskainia:
ez duzu egun hortan batere lanik eginen,
ez zuk, ez zure semeak, ez zure alabak,
ez zure mutilak, ez zure neskatoak, ez zure abereek,
ez eta zure etxean bizi den etorkinak ere.
- 11 Alabainan, Jaunak sei egunez egin ditu zeru-lurrak,**
itsasoa eta horietan diren guziak,
eta atsedean hartu zuen zazpigarren egunean.
Horra zergatik Jaunak benedikatu zuen larunbata, eta saildu egin.
- 12 Ohora aitamak, luzaz bizi zaitezen,**
Jaunak, zure Jainkoak, emaiten dautzun lurraldean.
- 13 Ez nehor hil.**
- 14 Ez egin adulteriorik.**
- 15 Ez ebats.**
- 16 Ez egin gezurrezko lekukotasunik hurko lagunaren kontra.**
- 17 Ez gutizia hurko lagunaren etxerik, ez haren emazterik, ez mutilik,**
ez neskatorik, ez idirik, ez astorik, ez eta deus harena denik.

“*Zinai mendian*” gertatua kondatzen da hemen. Bainan lehenago Izrael Egipton egona zen esklabo. Moisek handik atera zuen. Basamortuan barna Lur-Hitzemanerat zoala, herria behin baino gehiagotan mintzatu zen Moisen eta Jainkoaren beraren kontra : zergatik hainbeste sofrikario, egarria, gosea (mana ukanagatik), sugeak... Azkenean horra Sinai mendia, han eman baitzitzaizkion Izraeli ‘manamenduak’ gaur hemen irakurri ditugunak.

Geroztik, urte guziz, gizaldiz gizaldi, Izraelek Bazko besta ospatzen du, Egiptotik ateratzearen oroigarri, eta Mendekoste, Jainkoak Legea emaitaren oroigarri.

Bigarren bertseta da gainerateko guziaren gakoa : *“Ni naiz Jauna, zure Jainkoa, Egiptoko lurraldetik, esklabutza etxetik atera zaitudana.”* Horra hor Jainkoaren lehen “manamendua” nahiz ez den manu bat bezala emana, baizik nortasun aitortza bat bezala. Ondotik haatik zinez manamenduak dira bertset hauetan lerrokatuak : 3,7,8,12, 14, 15, 16,17.

Izraelen, Legearen berezitasuna ez da haren edukia; haren oinarria da lehen : Egiptotikako librantza. Izraelek badaki Jainko librantzaileak legea emaiten diola librantzazko bide bat bezala, zorion bide bat bezala. Huna Deuteronomak nola aurkezten duen Jainkoarekilako Elkargoa :

“ Begira gaur emaiten dauzkizuetan lege eta manamenduak, zoriontsu izan zaitezten zuek eta zuen ondokoak, eta luzaz bizi, Jaunak zuen Jainkoak betiko emaiten dauzuen lurraldean” (Dt 4,40). Jainkoaren manamendu bakotxa irakur daiteke beraz librantzazko ibilbide batean sartzea bezala. Librantza, lehenik, idoloetarik : *“Ez duzu izanzen nitaz beste jainkorik.”* Oro har, profetek ez dute besterik predikatu, idolatria baitzen Izraelen tentazionerik handiena. Gaur egun ez zuten besterik erranen gure gizarteari. Ezen idoloa zer da, esklabotzen gaituen zerbait baizik : dirua, sexoa, droga, berdin telebista, edo...lana, hunek ere beretzen ahal baigaitu, bertutearen itxurak hartuz. Bainan horra, Jainkoa gure libertateaz minbera da, maite gaituelakotz. Libre nahi gaitu ez beretzat, baizik guhaurentzat.

“Ez duzu eginen idolorik...” Jainkoaren itxura oro debekatua da, gezurrezkoa baizik ez baidaitzke izan : ez gira Jainkoaz jabetzen ahal, begiez ere.

“Hastio nauten aiten gaixakeria haurren baitan gaztigatzen dut hirugarren eta laugarren gizaldiraino; bainan milagarren gizaldiraino agertzen diotet urrikamendua ni maite nauteneri eta nere manamenduak begiratzen dituzteneri.” Orduko pentsa-moldean ez zitaken asma zigortzen, gaztigatzen ez zuen jainkorik. Bainan hemen berean aitortzen da Jainkoaren leialtasuna aise urrunago doala hari atxikiak direnen alderat (milagarren gizaldiraino, erran nahi baita betiko).

“Zazpigarren eguna pausu eguna duzu...” Sabatoa Jainkoari osoki kontsekratu eguna da. Nehork ez du lanik eginen, ez eta kabalek ere. Jainkoak eman librantza osoa ospatuko da. Aitzinamendu harrigarria, dakigularik Frantzian, hogoigarren mende hastean oraino, urte guzian, pausu-egun bakar bat ere ez zela legeztaturik langileentzat, ez eta igandea bera ere.

Azken manamenduak (13.bertsetetik 17.ra) debekuak dira : *“Ez hil, ez egin adulteriorik, ez ebats...”* gizarte guzietan elgarrekin bizitzeak eskatzen dituenak. Manamendu horiek ere libertatebide dira, guhaurentzat eta besteentzat. Lege ororen helburua (zuzena delarik) ez ote da, preseski, bakotxari eta deneri, libertatearen segurtatzea ?

Salmoa 18

Leloa : Betiereko bizirako hitzak dituzu, Jesu Kristo !

**Jainko legea on ona da,
Bihotz gogoen pizgarria.
Jaunaren hitza ezin alda,
Jende lañoen zuhurtzia.**

**Haren manuak beti zuzen,
Bihotzarentzat bozkario.
Garbiki dute joanarazten,
Soari argi baitzaizkio.**

**Jainko beldurra zoin garbia,
Menderen mende garbi doa.
Jaunak errana zoin egia,
Gezur izpirik gabekoa.**

**Urrea ez da hain dirdira,
Den garbiena balitz ere.**

**Eztiak ez du gozo hura:
Jaunaren hitzek non zer pare?**

Ba ote da laudoriozko kanturik “Code civil”aren ohoretan ? harritzekoa litaike. Salmo hau, aldiz, legeari kantatzen zaion himno bat da, edo hobeki erran, herriari Legea eman dion Jainkoari. Frantzia “Code Napoléon”-ak gobernatzen gaitu oraino. Izraelen “*Jainkoaren Legea*” erraiten zen. Jainkoak du Izrael Egiptotik libratu, Jainkoak du bere herria libratzen Legearen bidez. Nolaz ez pentsa Jainkoaren izena “*Amodio*” bada, berdin erran daitekeela “*Libertate*” dela. Ba ote da amodiorik, libertaterik gabe edo libertaterik, amodiorik gabe ?

Biblia guzia oihu bat da : Jainkoak zoriontsu nahi gaitu. Uros izaiteko bidea : Jainkoaren hitza, Legea. Bidea markatua da, manamendu baxotza hesol bat bezala landatua dela bide bazterrean : “*Haren manuak beti zuzen, bihotzarentzat bozkario. Garbiki dute joanarazten, soari argi baitzaizkio.*”

Bigarren irakurgaia

(Munduaren zentzua, eta gurutzearen erokeria)

Jondoni Paulok Korintiarreri

1, 22-25

Haurrideak,

- 22 Juduak Mesiasen ezaugarri eske dabilta, eta paganoak zuhurtzia bila.**
- 23 Guk, Mesias gurutzefikatua predikatzen dugu, juduentzat eskandala, paganoentzat erokeria dena.**
- 24 Bainan Jainkoak deitu dituenentzat, izan ditene Judu ala Greka, Mesias hori Jainkoaren indar eta Jainkoaren zuhurtzia da.**
- 25 Zeren Jainkoaren erokeria gizakiak baino zuhurragoa da, eta Jainkoaren ahulezia gizakiak baino indartsuagoa.**

Indargabeak senditzen gira guharen fedea norbaiti arrazoinatu nahi diogunean. Fededuna ez bada, gure eleak hutsak idurituko zaizko. Gaurko irakurgaietan Paulok erraiten dauku : problema hori betikoa da, eta ez daiteke bestela izan. Jainkoaren asmoa errotik arrotza zaiku, arrazoinaz haratagokoa. Ez da guri erraitea Jainkoari nola behar zuen mundua salbatu. Nola egin duen ikus dezakegu bakarrik.

Paulok bi etsenplu baditu aitzinean : juduak eta grekoak. Juduek badakite jadanik Jainkoaren erresuma nola agertuko den, Mesias nolakoa izanen den : “*Juduak Mesiasen ezaugarri eske dabilta.*” Jesus ez baita behar luken bezalakoa, beraz ez da Mesias. Paganoak behar luken bezalakoa, beraz ez da Mesias. Paganoek (grekoek), berriz, zuhurtzia dute bilatzen. Bainan filosofia grekoak Jesusen bizi eta ekintzekin ez du deus ikustekorik. Beraz ez du balio mintzatzea. Atenaseko zuhurrek ez zioten kasu handirik egin Pauloren elasturiari. Hots, dio Paulok, denak beren hartan itsuturik daude. Bakarrik “*Jainkoak deitu dituenek*” dute Jesus aitortzen ahal. Bestela erran, fedea Jainkoak egiten duen dohain bat da. Dohain berezi hori gabe nola aitor Mesias kurutzefikatua ?

Mesias kurutzefikatu hori “*eskandala*” da juduentzat. “*Eskandala*”, berez, norbait erorarazten duen bideko harria da. Testamendu Zaharrean maiz aipu da Mesias : Daviden ondokoa izan behar du, errege Jerusalem, aldebateko bakearen finkatzaile. Aldiz, Jesus hori kurutzean hila da, bere bekatuarengatik, zeren blasfematzaile izan baita bere burua Mesiasentzat eman duelakotz. Eta zenbat aldiz ez zuen Jainkoaren Legea hautsi, bekatariekin ibiliz, sabatoa mesprextatuz.

Horri girixtinoek ihardesten dute : ez da bere bekatuarengatik hil, ez baitu sekula bekatu egin. Sofritzea onartu du gure bihotzak idek ditzogun Jainkoaren amodio neurrigabekoari. Izai profetak aipatu zuen zerbitzari sofritua da Jesus : “*Mesprextatua zen eta jendeek baztertua, oinaze-gizona, sofritzen ikasia, bere aurpegia estaltzen duena iduria...Alta gure gaitzak zituen bere gain hartu, gure oinazeen zama jasan. Guk, berriz, Jainkoak joa zela uste ginuen, Jainkoak zigortua...harek jasan du*

*guretzat salbagarri izanen den zigorra : haren zauriek sendatu gaituzte” (Is 53,3-5). “Zerbitzariaren kantikak” (Is 50, 51, 53) Jesu Kristo aitzineko seigarren mendekoak izan daitezkenak, etorri beharra zen Mesias ez ari ziren, Testamendu Zaharreko teologo zenbaiten ustez. Jesus piztu ondoan girixtinoek testo horiek ber-irakurtu zituzten eta argi osoan agertu zitzaizkioten : mixteriozko “zerbitzari” hori Jesus da. Jainkoaren pentsa eta egin moldeak ez dira gureak. Fededuna ez denari zoroak iduritzen zaizko, baina Jondoni Paulok dionaz “*mundu huntako zuhurtzia erokeria da Jainkoaren aitzinean* (1 Ko 3,13). Eta Jesusek : “*Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza horiek zuhur eta adituari gorde baitizkiezu eta ttipieri agertu*” (Mt 11,25). Ez gaiten beraz harri Jainkoaren mixterioaz mintzo girelarik hotzak eta motzak balinbadira ere gure hitzak. Ez daiteke bestela izan.*

Ebanjelioa

Jesu Kristo guri mintza, argi gure bihotza.

Goraipa Kristo Jauna :

Haren baitan, haren gorputzean dago

Jainkotasunaren bete bete.

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 2,13-25

- 13 Hurbil zen Juduen Bazko-besta eta Jesus Jerusalemerat igan zen.
- 14 Tenpluan merkatariak aurkitu zituen idi, ardi eta uso saltzen, eta diru-trukalariak ere, han jarririk.
- 15 Sokaz azote bat eginik,
Tenplutik haizatu zituen denak, bai eta ardi eta idiak ere, trukalarien diruak barreiatu eta mahainak uzkailli.
- 16 Uso-saltzaileeri erran zioten:
“ Ken horiek hemendik!
Ez egin nere Aitaren etxea merkatu-etxe.”
- 17 Haren dizipuluak oroitu ziren izkiriatura dela:
Zure etxearen maiteminak erreko nau.
- 18 Juduek orduan galdatau zioten:
“ Zer ezaugarri emaiten daukuzu horren egiteko ?”
- 19 Jesusek ihardetsi zioten:
“ Suntsi zazue Tenplu hau, eta hiru egun barne berriz eraikiko dut.”
- 20 Juduek erran zioten:
“ Berrogeita sei urte behar izan dira Tenplu hunen egiteko, eta zuk hiru egun barne berriz eraikiko duzula?”
- 21 Hura, ordea, bere gorputzaren tenpluaz ari zen.
- 22 Horrengatik, hilen artetik piztu zenean, oroitu ziren haren dizipuluak hori erran zuela; eta sinetsi zuten liburu Saindua, bai eta Jesusek erran hitza.
- 23 Jerusalemengatik zagolarik Bazko-bestako, ainitzek sinetsi zuten haren baitan, egiten zituen ezaugarriak ikusi-eta.
- 24 Baina Jesus bera ez zen heietaz fida, denak ezagutzen baitzituen,
- 25 eta ez baitzuen nehork gizonaz argitze beharrik, berak baitzakien zer dagon gizakiaren baitan.

Tenplotik kanpo, tenploko plazan (bainan hau ere tenploaren parte bat bezala zen) ikusten zena aspaldiko mendetan egiten zen. Sakrifizioako abereak nunbait erosi behar ziren, diru aldaketak ere beharrezkoak ziren tenploko moneda baizik ez baitzen onargarri. Eta beste. Jesusen hasarrea nehork ez zezakenez konpreni. Geroago, zenbaiti gogoratuko zitzaizkien Jesusek errana : “*Hilen artetik*

piztu zenean, oroitu ziren haren dizipuluak hori erran zuela; sinetsi zuten Liburu Saindua bai eta Jesusek erran hitza” (22.bertseta). Eta oraino, denek ez zuten konprenitu.

Bazter guzien uzkalzten ari zelarik, Jesusek erran zuena, oraino nekeago zen konprenitzeko. *“...nere Aitaren etxea”* diolarik, ez ote du bere burua profetatzen hartzen ? Jeremik errana zuen : *”Ohoin-zilotzat ote daukazue neri sagaratua den tenplo hau ? (7,11).* Gehiago oraino, bere burua Mesias-tzat dauka. Alabainan Zakari profetak mezutua zuen : *“Egun hartan (Mesias etorriko denean) ez da gehiago merkataririk izanen Jaun Guziahaldunaren etxean. (Za 14,21)* Dizipuluek sumatzen dute Jesusen ekintza hori profetikoa dela, eta gogorat jin bide zaiote 69. salmoaren bertset hau :

*“Zure tenploaren maiteminak nau erretzen,
zure kontrako laidoak zaizkit gainerat erortzen.”*

Besteak, Joanik “juduak” deitzen dituenak, ez dira hortarik ari. Heientzat Galilear bat baizik ez da Jesus. Oro har, arrazoin dute Jesusi ezaugarri baten galdegitea. Jesusen errepostua argi eta garbi izanen da dizipuluentzat, Jesus piztuko delarik : *“Suntsi zazue tenplu hau, eta hiru egun barne berriz eraikiko dut.”*

Delako “juduentzat” Jesusen errepostua eskapagia bat bezala zen, arrazoinez kanpoko ele ozarra. Nahiz eta Liburu Sainduak irakurtzen zituen batentzat “hiru egun” horrek bazuen erran-nahi berezia : komunzki Jainkoarekin buruz buru egiteko epea zen, profeten ahoan. Bainan Galilearra ez zen profeta!

Pasarte hunen muina hau izan daiteke, Joaniren arabera : badira ideia ina-prestak jendea bere hartan kokatzen dutenak eta itsutzen. Dizipuluak ez ziren hortan. Jesus bizitzen ikusi zuten, gogoia libre. Hazia beren baitan onartu zuten, gero ozituko zena : Jainkoa ez dela bizi harrizko tenplo batean, bainan gizadiaren erdian, Piztuaren gorputzean.